

Bero-beroan

Arduradun politikoen erdiak dira euskaraz hitz egiteko gai

EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako, Eudeleko eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundietako ordezkariak Herri Administrazioetako euskararen erabilera planaren (2003-2007) balorazioaren aurrerapena aurkeztu dute. Emaitzen arabera, arduradun politikoen %56,30ek euskara ulertzen dute eta %51,01 hitz egiteko gai dira. Herri administrazioen erdiek euskara planen bat eginda dute. Ez dutenen artean %24 saiatu dira. Hala ere, euskara planen bat dutenetatik erdiek baino ez dute egiten planaren jarraipena. Hizkuntz eskakizunari dagokionez, administrazio langileen %16k ez dute egiaztatu beren lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna eskatutako epean; %54,1ek egiaztatu dute eta gainerakoak behin-behineko langileak dira. Jaurlaritzako Administra-

zio Orokorreko langile titularretatik %38,15ek dute hizkuntz eskakizuna egiaztatzeke derrigortasuna. Hiru aldundietako administrazioetako langileen artean berriz, %48,44k.

Ama eskola Donamartirin

ARBEROA AMA ESKOLA irekiko du Seaskak Donamartirin (Nafarroa Beherean), datorren ikasturterako. Izturitze, Donostiri eta Donamartiriko hamar haur ingururekin abiatuko da. Egoitzaren egokitzea bere gain hartu du Seaskak. Materiala erosi ahal izateko berriz, kanpaina abiatuko dute gurasoek.

Ertzainen erdiek ez dute euskara jakin beharko

EUSKO JAURLARITZAKO Herrizaingoa Sailak Ertzaintzako 120 plaza betetze-ko oposizio bidezko deialdia argitara-

tu du eta lanpostuen %42k besterik ez dute derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna, 1. hizkuntza-eskakizuna, hain zuzen. Gainontzekoetan euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratu da. Oposizioko puntuazio osoaren %9,09 (50 puntu) esleitu dizkiote euskararen ezagutzari.

Hitzaditzaren ekitaldia maiatzaren 5ean

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK eta Iparraldeko AEK-k Hitzaditza euskarazko diktaketaren bigarren edizioa antolatu dute. Diktaketa idatzia- ren bitartez, euskararen erabilera sustatzea eta bereziki, irakurmena eta idazmena bultzatzea da ekimenaren helburua. Maiatzaren 5ean Baionan egingo da Iparraldeko bi euskal idazlek idatziko duten testuaren diktaketa. Euskal Kultur Erakundearen web gunean trebatzeko jokoak ditu Hitzaditzan parte hartu nahi duenak. Izena emateko epea apirilaren 29an amaituko da.

BAHEA

Enekoitz Esnaolak erabili.com-en esanak:

“Azpeitiko udal ordenantzak ‘herriko hizkuntza euskara’ dela esan arren, herrian euskara oraindik ez dago normalizatuta, euskaldunak ez dira euskaraz bizi. Helburu hori lortzeko, euskaldunen konpromiso irmoaz gain, erdaldun elebazarrek euskaraz ikasi beharko dute, beraien eskubideak urratu gabe. Baina nola egin saioa haiek hemengo hizkuntza ikasteko? Kasu, legedi bidez, araututa. Hau da, Ibarretxe Planak arlo horretan esaten duena ez eginda”.

Aitor Aranak Aldaketa hamasein esanak:

“Daukagunaren arabera egin behar dugu lan, haserre eta madarikazioetan indarririk galdu gabe. Eusko Jaurlaritzari nik eskerrak ematen dizkiot bihotzez, honelako lan bat (*Hegoaldeko goi-nafarroa. Iruñeko aldaera*) ezin delako kaleratu dirulaguntza ofizialik gabe. Nafarroako Gobernua, berriz, ziur naiz egun ez oso urrun batean honelako lanen eragilerik handiena izango dela berriz ere, Nafarroako erakundeak garai batean izan ziren bezala”.

Antxoaren istiluak saihestu

Europako Batasunak ekainera arte antxoa arrantzatzea debekatu zuen, Bizkaiko Golkoan espezie honen egoera larria zelako. 2001ean 18.950 tona arrantzatu ziren, eta 2005ean 165 tona besterik ez. Hala ere, Bizkaiko Golkoan antxoaren egoera ebaluatzeko kanpaina esperimental zientifikoa egitea baimendu da. Kanpaina Espainiar Estatu-ko hogeitazentziko eta Frantziako zortzik hartzen dute parte. Harrapatutakoarekin zer egin behar den erabakitzeko desadostasun larriak daude. Frantziaren presiopean, Europar Batasunak ezarri zuen lan zientifikoak amaituta merkatura eramanez ahal izango zirela antxoak. Horrek Frantziako arrantzaleei egiten die mesede. Bestetik, Hego Euskal Herriko arrantzaleak eta Kantabriakoak antxoa horrekin neoziorik ez egitearen aldekoak

dira. Egoera horren aurrean, Gipuzkoako arrantzaileen kofradien presidente den Jaime Tejedorrek duela bi hilabete hauxe adierazi zuen: “Udaberriaren istiluak izan daitezke, portuan geratuko diren Euskal Herriko eta Espainiako 180 itsasontzitako langileak ez baitira besoak gurutzatuta egongo, baldin eta frantsesek negozioa egiten badute antxoa horrekin”. Egoera honetan, arduradun politikoei erne egon beharko lukete, beste behin gerta daitezkeen “antxoaren istiluak” saihesteko. Azken urteotako “antxoaren istiluak” ondorio latz eta izugarriak izan dituzte. Baliabide politikoa guztiak erabili beharko liriteke antxoa merkaturatua izan ez dadin, Hegoaldean behintzat. Beranduegi ote da?

Juan Mari Arregi

Hauteskundeetako termometroa

HAUTSKUNDEEN zurrunbilolan sartuta gaude bete-betean Adurretik Ebrorainoko lurraldeetan, bai horietan eta bai hauetatik gora eta behera ere. Igandean ikusiko da zein bi hautagai geratzen diren Eliseorako maizter lehian. Iragan asteburuan, hamar biztanletik lauk oraindik erabakitzeke zuen bere botoa, baina aurrezaleen artean oso hedatua dago lehendakaritzarako azken hauteskundeetako Chirac-Le Pen lehia haren gisakoa errepika daitekeela, gaur egun Sarkozy-Le Pen litzatekeena. Euskal eremu hauetatik bigarren itzulira pasatuko diren bi hautagaiei begiratuko zaie, jakina, baina bigarren begia Euskal Herria Bai koalizioaren emaitza izango da. Abertzalegoan ilusioa sortzen duen apustua da, zalantza barik, eta herritarrengan ere hala den frogatzeko unea da.

HEGOALDEAN egoera biziki nahasia da, hauteskunde demokratikoak normaltasunez egiteari dagokionez behintzat bai. Gutxi irudika zezakeen duela urtebete oraindik ere maila kaskar honetan izango ginatekeenik. ETak su-eten iraunkorra aldarrikatu berri, bake prozesuaren ondorioz aurrerapen izugarriak lortu barik izango zirela agian sinestekoa zen, baina inork gutxi irudika zezakeen Batasunak halako arazoak izango zituenik hauteskundeetan parte hartzeko. Baina bai, arazoak handiak eta sakanak dira, eta demokratikoki hain larria dena kiniela kontua bihurtzera bultzatu du dinamika politikoak. Eta horrez gain, bake prozesuaren egokieraren termometroa gordina bilakatu da. Areago, ezker abertzaleak aur-



Hauteskundeetan egon ahal izateko ANVn lehen urratsa eman zuenetik, arreta informatibo osoa bereganatu du.

kezterik ez badu, ETak erantzun egingo duela iradoki du Gara-n argitaratutako azken elkarrizketan. ASB eta honen inguruko plataformekin ENAM bere jokaldia egiten ari da, nahiz eta Alderdien Legea erabiliz, lehen asaltoan jokoz kanpo utziko den. ANVren bidez edo bestelako bideren batez, baina Batasunak nolabaiteko ordezkia izango duela lau haizetara zabalik da dagoeneko. Izan bai, baina ez da ahortzi behar hiru hauteskunde mota daudela, eta foru eta Nafarroako Legebiltzarreko hauteskundeetan aurkezteko atea zabalik geratuko bide bada ere, herrietakoak dira zalantzarik handiena. Denak adierazten du, 2003an bezala, Auzitegi Gorenak hautaketa zorrotza egingo duela; orduan, aurkeztutako herri plataformen %10ak baino ez zuten lortu Gorenaren langa gaituztea. Datorren astean jakingo da hori, baina denak adierazten du PSOEek orain arteko presio politika erabiliko duela gai honekin ere eta horretarako modu bat da Batzar Nagusiak eta Nafarroako Legebiltzarrari begira malgu jokatzea eta jarrera gogortzea udalen kasuan. Hipotesia borobiltzen

jarraitzeko, agian bi zerrenda eratuz gaituz ahal izango da Alderdien Legea herri askotan, baina beste askotan ez da indarrik izango bi zerrendak osatzeko. Hipotesirik txarrean ezker abertzale nagusiak ez luke inolako ordezkartzarik izango hauteskunde hauetan eta horrek esan nahiko luke bake prozesua erabat apurtua legokeela. Ez da eszenatoki gertagarriena, baina beti ere balizkoen artean dago.

JUAN JOSE IBARRETXE lehendakaria ere argi mintzatu da komunikabideetan eta bere esanetan, ETak egingo duena eginda ere, aurtengo legealdian bere izenarekin ezagutzen den autonomia estatutu berria EAEko herritarrei kontsultatuko die. Batetik, ez litzateke seinalerik onena, batez ere bake prozesuari begira, Ibarretxe lehendakariak baino, Alderdien Mahaiak plazaratutakoa kontsultatzea delako logikoena. Bestetik, prozesua guztiz hondoratuz gero, logikoa litzateke Ibarretxe plana moduan ezagutzen den proiektua EAEko herritarren eskuetan jartzea. Bitxia da, halaber, ikustea EAJn Madrilgo Gorteek eztabaidara onartu ere ez zuten proiektuarekiko sumatzen diren jarrerak. Egibarren sektoreak giltzarriztat jotzen du etorkizunari begira eta berau eztabaida politikora ekartzeko edozein aukera baliatzen du. Josu Jon Imazi eta bere ingurukoei, aldiz, nekez ateratzen zaie honen inguruko iruzkinik. Baina tira, agian hori da alderdiaren estrategia, jokabide horiekin gizarte sektore desberdinek erakartzea lortuz.